Zurekin
# LARRABETZU
ehbildu
gara

## IÑIGO GAZTELU BILBAO

1968. urtean Larrabetzun jaioa.
Eroskiko langile-kooperatibista 1989. urtetik.
2015etik 2019ra Larrabetzuko alkatea.

GARDENTASUNA | KONPROMISOA





**Bea Ilardia**
Foru hauteskundeetako zerrendaburua

«Bizkaia hobetu dezakegu herrialdeak dituen baliabideekin»

«Aprovechemos los recursos para mejorar Bizkaia»



**LARRABETZUKO ZERRENDA:** 1. Iñigo Gaztelu Bilbao • 2. Maripi Agirre Bujanda • 3. Leire Etxebarria Gaztelu • 4. Maddi San Miguel Alkorta • 5. Igor Elordui Etxebarria • 6. Itxaso San Roman Aiartza • 7. Naia Madariaga Gartzia • 8. Aintzina Lekue Etxebarria • 9. Olatz Karro Boado • 10. Jose Ricardo Artetxe Zarandona (Malatierra) • 11. Jone Aguayo Arberas • 12. Mari Jose Ugalde Morales • 13. Arkaitz Esteban Yañez • 14. Idoia Andres Granado

“Euskal Herria Bilduren lana Udalean, talde lana da. Azkenengo zortzi urteetan horrela izan da eta datorren legegintzaldian ere horrela izango da. Hemen agertzen garen andrak eta gizonak herria ezagutzen dugu; herria bizi dugu; herriko elkarteetan lan egiten dugu eta ekimen desberdinetan partehartzen dugu; herrian inplikatuta gaude.
Udaletik herritarrekin eta herriko elkarteekin elkarlana bultzatuko dugu. Herritarrak eta herriko elkarteak protagonistak izango dira, orain eta beti.”

“El trabajo en el Ayuntamiento es un trabajo de equipo. Así ha sido durante los últimos ocho años y continuaremos trabajando en esta línea. Somos mujeres y hombres que vivimos en Larrabetzu y nos implicamos en las diferentes actividades locales.
Vamos a seguir trabajando por y para Larrabetzu, para que la ciudadanía y las diferentes asociaciones locales sigan siendo las protagonistas de nuestro municipio.”

## IÑIGO GAZTELU BILBAO

«Larrabetzuarrontzat sano garrantzitsuak diren hainbat ekimen gauzatzea gura dudalako aurkeztuko naiz berriro alkate izateko. Herritarrok udal kudeaketaren protagonista izaten jarraituko duzue. Oroimen historikoa berreskuratzea gura dugu; gure herriko historiarekin dugun zorra da.»

<< Me vuelvo a presentar como candidato a la alcaldía de Larrabetzu porque creo que el programa de EHBildu para nuestro pueblo no es un proyecto para sólo cuatro u ocho años sino un conjunto de actuaciones que, junto con el cambio, también exige continuidad. >>

Berriro alkate izateko aurkeztea erabaki dut. Aurreko agintaldian larrabetzuarrontzat sano garrantzitsuak diren hainbat ekimen, proiektu eta inbertsio abiarazi ditugu eta hurrengo agintaldian denak gauzatzea gura dudalako aurkeztuko naiz. Ekimen, proiektu eta inbertsiootako gehienak zuon, herrikideon, ekarpen eta ideiei esker abiarazi ditugu, zuokaz batera. Horrek beste lau urtean jarraitzeko itzelezko indar eta ilusioa ematen dizkit.

Herri programa honetan, hurrengo lau urteetarako EHBilduren Larrabetzuko taldearen proposamenak irakurri ahal izango dituzu: inbertsio gehiago, herri azpiegituretan hobekuntzak, kirol eta kultur elkarteentzako diru laguntza gehiago, ideia eta proiektu berriak... Eta garrantzitsuena zuk zeuk, larrabetzuar horrek, gure udalgintza lanaren erdigunean jarraituko duzula, herri proiektu bat dugulako zugaz batera burutzeko.

Me vuelvo a presentar como candidato a la alcaldía de Larrabetzu porque creo que el programa de EHBildu para nuestro pueblo no es un proyecto para sólo cuatro u ocho años sino un conjunto de actuaciones que, junto con el cambio, también exige continuidad. Gracias a ti, que durante estos años has aportado tus ideas, tus propuestas y también tus quejas para conseguir un Larrabetzu mejor, me siento con fuerza e ilusión para continuar otros cuatro años más al frente de la alcaldía.

Durante la legislatura que ahora termina, hemos puesto en marcha muchas iniciativas, proyectos e inversiones que necesitan continuidad en la próxima legislatura. En esta publicación podrás leer las propuestas del equipo de EHBildu de Larrabetzu para los próximos cuatro años: más inversiones, mejoras en las infraestructuras locales, más dinero para las asociaciones deportivas y culturales, nuevas ideas y proyectos... Pero lo más importante es que tú, vecina o vecino de Larrabetzu, seguirás siendo el principal protagonista de nuestro trabajo en el Ayuntamiento.




# SARRERA

# INTRODUCCIÓN

EHBilduren Larrabetzuko taldekook datorren agintaldirako proposatzen dizuegunaren muinean lau oinarriok ditugu:

- Gure udal jardueraren ardatza, azken zortzi urteotan legez, kultur, kirol, gazte zein emakume taldeek eta herritar norbanakoek izaten jarraituko dute. Herritarrok udal kudeaketaren protagonistak izaten segituko duzue.
- Udal bizitzaren protagonista zaretenontzako diru partidak igoko ditugu. Elkarteak protagonista izatea nahi badugu, argi dugu euren ekimenak gauzatzeko finantziazio iturriak izan behar dituztela. Honetarako, neurri zehatzak planteatuko ditugu.
- 1.950.000 € inbertituko ditugu herriko azpiegitura eta proiektu berrietan.
- Memoria historikoa berreskuratzea gura dugu. Hau gure herriko historiarekin dugun zorra da. EHBildu gobernuan dagoenetik, historian lehen aldiz, diru partidak esleitu zaizkio egia historikoa berreskuratzeko lanari. Memoria historikoan inbertitzen jarraituko dugu.

Estas son las ideas y ejes de trabajo más importantes que proponemos para la próxima legislatura:

- Como en los últimos 8 años, los grupos culturales, deportivos, juveniles y feministas de Larrabetzu, junto a las vecinas y vecinos del municipio, continuaréis siendo el eje principal de nuestra actuación municipal.
- Incrementaremos las partidas municipales para los grupos y asociaciones de ámbito local. Si queremos que las asociaciones populares de Larrabetzu tengan un papel destacado en la vida municipal, deben contar con fuentes de financiación suficientes.
- Vamos a invertir 1.950.000 € en las infraestructuras locales y en nuevos proyectos.
- Recuperación de la memoria histórica. Esta es una deuda que tenemos con nuestra historia local.





## HIRIGINTZA URBANISMO | 01

Larrabetzu, Herria Antolatzeko Plan Orokorrean (HAPOn), zehaztutako irizpideen arabera hobetzen jarraituko dugu. Etxebizitza bat eskuratzeko hainbat larrabetzuarrek duten arazoari erantzuteko politika publikoak garatuko ditugu, ingurumena errespetatuko dugu eta erreka, kirolgune zein eskola inguruko azpiegiturak eta mugikortasuna hobetzen jarraituko dugu. 2019-2023 urteetan 1.950.000€-ko inbertsioa egitea aurreikusi dugu.







### PROPOSAMENAK

- HAPOn aurreikusten diren babes publikoko 34 etxebizitzen kudeaketa identifikatutako beharrizanen arabera zehaztuko dugu.
- Zehaztuko ditugun baldintzen arabera, baserrietan gehienez lau etxebizitza eraikitzeko aukera aztertuko dugu.
- Etxebizitzaren alokairuan laguntza emateko ordenantza erregulatzailea zehaztuko dugu.
- Etxebizitza hutsen erabilerarako Udalak bitartekari eta aholkulari lana egingo du jabearen eta beharrizana duenaren artean.
- Etxebizitza promozio berrietan, Udalari dagokion %15aren aprobetxamenduaren zati bat Udalaren beraren esku utziko dugu larrialdiko egoeretan erabiltzeko.
- Datozen lau urteotan ur zikinak eta euri urak banandu egingo ditugu.
- Kirol azpiegiturak hobetuko ditugu:
    - Pilotalekuan berogailua jarriko dugu eta gimnasioa berritu.
    - Igerilekuan eta futbol zelaian hobekuntza obrak egin: aldagelak hobetu.
- Eskola azpiegitura estrategikoa da. Helburu nagusiak eraikuntza isolatzea eta energiaren efizientzia lortzea dira: Kalefakzioa hobetu eta leiho guztiak aldatu. Bestalde, bertako txinbo gunea estali egingo dugu.
- Irisgarritasunari dagokionez, udaletxea konponduko dugu, herritarrei zerbitzu hobea emateko eta espazioen aprobetxamendua optimizatzeko.
- Mugikortasun Plana garatzen segituko dugu: seinalizazioa hobetu, oinezkoentzat espazioak handitu, aparkaleku gehiago eraiki eta Gaztelumendi eta Errebale kaleak batuko ditugu.
- Ludoteka gaineko solairuaren erabilerarako ideia lehiaketa proposatuko dugu.
- Auzoetako buzoiak berriztuko ditugu.
- Eleixaldeko txokoa, bertako auzokideek dohainik erabiltzeko hitzarmena berriztu.

### PROPUESTAS

- Se gestionarán las 34 viviendas de Protección Oficial, según las necesidades detectadas.
- Se analizará la posibilidad de construir hasta cuatro viviendas en los caseríos.
- Se prevé la concreción de la ordenanza reguladora de las ayudas al alquiler de viviendas.
- El Ayuntamiento mediará entre las personas necesitadas de una vivienda y las personas propietarias de viviendas vacías.
- Se dejará en manos del Ayuntamiento el 15% que le corresponde en la edificación de nuevas viviendas para que se pueda utilizar en los casos de urgencia.
- Durante los próximos cuatro años se procederá a separar las aguas fecales y las fluviales.
- Mejoraremos las infraestructuras:
    - o Instalaremos un sistema de calefacción en el frontón y se renovará el gimnasio.
    - o Renovación de vestuarios de las piscinas y del campo de fútbol.
- En la escuela el objetivo es conseguir el aislamiento y la eficiencia energética. Además, se cubrirá la zona de los columpios.
- Reformaremos el ayuntamiento para dar un mejor servicio a la ciudadanía y optimizar el aprovechamiento de los espacios.
- Mejora de la señalización, ampliación de los espacios peatonales y del número de aparcamientos y unión de las calles Gaztelumendi y Errebale.
- Se planteará un concurso de ideas sobre el uso del piso superior de la ludoteca.
- Renovaremos los buzones de los barrios.
- Renovar el convenio de cesión para el uso gratuito del txoko a las vecinas y vecinos del barrio de Eleixalde.

## OSASUNA SALUD | 02

Gure helburua herritarren osasun egoera eta arreta zerbitzuak gero eta hobeak izan daitezen bermatzea da. Horretarako, osasungintza publikoaren alde egiten jarraituko dugu.

**PROPOSAMENAK**

- Pediatria eta emagin zerbitzuak Larrabetzura ekartzeko hasitako bidean lan egiten jarraituko dugu.
- “Zahartzea ez da bizi kalitatea galtzea” egitasmoa garatuko dugu: Proiektu honetan, Osakidetzak, Gizarte Zerbitzuek, Udalak eta herriko eragileek parte hartuko dute. Helburua: adineko larrabetzuarren artean sarea sortu eta bizi kalitatea hobetzea da.



PROPUESTAS

- Continuaremos trabajando con el objetivo de traer a Larrabetzu los servicios de pediatría y obstetricia.
- Desarrollaremos el proyecto “Envejecer no es perder calidad de vida”: Este plan se desarrollará con la participación de Osakidetza, servicios sociales, Ayuntamiento y agentes sociales, siendo su objetivo crear una red entre las personas mayores y mejorar su calidad de vida.

## KIROLA DEPORTE | 03

Kirolaren kontzeptu mugatu batetik, jendarte aktibo bat sustatzera pasatzea dugu helburu. Kirola gizarte eraldaketarako oso aintzat hartu behar dugun tresna da, herritarrak saretzeko, erakartzeko eta inplikatzeko duen gaitasunagatik, eta Euskal Herriaren izaeran eta kulturan duen pisuagatik.

**PROPOSAMENAK**

- Kirolaren bitartez Larrabetzuko zein Euskal Herriko historia, ohiturak eta abar ezagutzeko aukera eskaintzea.
- Beste kirol kolektibo batzuk sustatzea eta indartzea da gure asmoa, esate baterako, umeak eta adinekoak batuko dituzten kirol jarduera edota jokoak.
- Kirolbilgunea sortzea proposatzen dugu, aurreko helburu guztiak lor daitezen, Larrabetzun kirolgintzan ari diren eragileak, elkarteak zein norbanakoak, bilduko dituen gune parte-hartzailea izango dena.

PROPUESTAS

- Ofrecer la posibilidad de conocer la historia y costumbres de Larrabetzu y de Euskal Herria a través del deporte y potenciar los deportes autóctonos.
- Nuestra intención es la de promover y reforzar otro tipo de deportes y juegos colectivos, como, por ejemplo, aquellos que reúnan a niños y niñas con personas mayores.
- Proponemos la creación de Kirolbilgunea (la coordinadora de deporte), que será el organismo de participación encargado de que se cumplan todos los objetivos anteriores.



## NEKAZARITZA AGRICULTURA | 04

Nekazaritza arlo estrategikoa dugu. Tokiko elikadura produktuen ekoizpena eta kontsumoa bultzatzeko baliabideak eskaintzeko apustua egiten jarraituko dugu.

Basogintzarako eredu berriak bultzatuko ditugu.

**PROPOSAMENAK**

- Basogintza-Nekazaritza eredu berri bat bultzatzeko, lur pribatuak erosi eta publikoak izan daitezen, urtero 10.000 euroko diru partida onartuko dugu. Horretarako, ordenantza berezia adostuko dugu herriko nekazari eta eragile sozialekin.
- Baserritarrekin batera, nekazaritzarako diru laguntzak bideratzeko, produkzio ekologikoa aintzat hartuko duen ordenantza landuko dugu, besteak beste,honako proposamenekin: nekazaritzarako baserriak modernizatzeko eta uraren kontsumoa ordaintzeko diru laguntzak.

PROPUESTAS

- Destinaremos una partida anual de 10.000 € para la compra de tierras con el objetivo de convertirlas en públicas y elaboraremos una ordenanza destinada a impulsar un nuevo modelo agrícola-forestal junto con agricultores y agentes sociales del pueblo.
- Elaboraremos, en colaboración con las y los baserritarras, una ordenanza de ayudas económicas a la agricultura, teniendo en cuenta la producción ecológica.



## INGURUMENA MEDIO AMBIENTE | 05

Ingurumena zaintzea lehentasuna da. Larrabetzuko esperientziak, organikoaren bilketan eta konpostaren kudeaketan beste herri batzuentzat eredua dira eta bide horretatik jarraituko dugu.

**PROPOSAMENAK**

- 2020rako hondakin bilketaren portzentaia %50era igotzea dugu helburu eta birziklapena eta berrerabilera handiagotzeko beharrezkoak izango diren ekimenak bultzatzen jarraituko dugu.
- Herriko elkarteekin batera, organikoaren bilketan eta konposta egiteko prozesuan herritarren parte-hartzea bultzatu, eta % 60ra igotzea lortu gura dugu.
- Udal eraikinetan, energia berriztagarriak erabiltzeko neurriak hartuko ditugu: elektrizitatea, berogailua...

PROPUESTAS

- Tenemos como objetivo aumentar la cantidad de recogida de residuos orgánicos al 50% para el año 2020 y seguiremos fomentando aquellas iniciativas que sean necesarias para aumentar el reciclado y la reutilización de los materiales.
- Seguiremos trabajando con las asociaciones del pueblo para llegar, a través de la participación popular, al 60% en la recogida de orgánico y su posterior proceso de compostaje.
- Tomaremos medidas para que los edificios municipales se suministren de energía renovables: electricidad, calefacción, ...

## KOMERTZIOA-ENPLEGUA COMERCIO-EMPLEO | 06

Herriko komertzio txikia babestea eta bultzatzea beharrezkoa da. Azkeneko urteetan egindakoari bultzada berri bat eman eta bide berriak zabalduko ditugu.

Udaletik, kalitatezko enplegua sortzeko pauso berriak ematen jarraituko dugu.




**PROPOSAMENAK**

- Herriko merkataritza defendatuko eta bultzatuko dugu:
  - o Bertoko merkatari zein tabernariekin harremanak estutuko ditugu.
  - o Urtero, 5.000€ bideratuko ditugu larrabetzuarrok Larrabetzun erosi dezagun: zozketak, kontzientziazio kanpainak...
- Enplegu publikoa bultzatuko dugu, besteak beste, lan publikoetarako kontratazio zuzenak lehenetsita.
- Aukera berriak bultzatuko ditugu: gure neurrirako turismoa, erromesen aterpea, agroturismoa/nekazalturismoa...

**PROPUESTAS**

- Defenderemos y fomentaremos el comercio en el pueblo:
  - Estrecharemos las relaciones con el comercio local, los bares ...
  - Destinar una partida de 5.000 € anuales a promocionar el comercio local: rifas, campañas de concienciación...
- Promoveremos el empleo público y continuaremos con las contrataciones directas.
- Impulsaremos nuevas oportunidades de empleo: turismo, albergue de peregrinaje, agroturismo...

## PAREKIDETASUNA IGUALDAD | 07

Larrabetzu, feminista eta indarkeria matxistarik gabeko herria izatea lortzea da gure helburua. Erakunde publikoa den heinean, Udalari ere badagokio, gaur egun bizi dugun pertsonen arteko aukera berdintasun eza ekiditea.



**PROPOSAMENAK**

- Larrabetzu feminista eta indarkeria matxistarik gabeko herria izatea lortzeko helburuarekin lan egingo dugu.
- Politika publikoetan, aukera berdintasun eta genero ikuspegia kontuan hartzea bermatuko dugu.
- Larrabetzuko talde feministekin batera elkarlanean jarraituko dugu.
- Eraso matxisten aurrean biktimaren aldean egongo gara eta behar duen babesa emango diogu beti.

**PROPUESTAS**

- Trabajar para construir una Larrabetzu feminista y sin violencia machista.
- Tener en cuenta la igualdad de oportunidades y la perspectiva de género en las políticas públicas.
- Continuar colaborando con los grupos feministas de Larrabetzu.
- Apoyar a las victimas ante los ataques machistas, dándoles la protección que necesitan.




## EUSKARA | 08

Euskaraz bizitzea ahalbidetuko duten baldintza politiko, juridiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak lortu behar ditugu: euskararen erabilera handitzeko, ohiko hizkuntza bihurtzeko eta euskararen normalizazioa bideratzeko, euskara jakitea unibertsalizatzeko eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa emateko.

**PROPOSAMENAK**

- UEMAgaz Udalaren euskara plan estrategikoa garatuko dugu.
- Herritar guztiok aukera izan dezagun, euskara ikasteko diru-laguntzak ematen jarraituko dugu.
- Kale erabileraren indizea modu nabarmengarrian hobetzeko hizkuntzarekiko kontzientziazioa eta sentsibilizazioaren aldeko iniziatibak sortuko ditugu.
- Euskaraldia (2020): Lan taldean parte hartu eta babestuko dugu.
- Norbanakoz osatutako Euskararen Herri Batzordea sortzea proposatuko dugu.

**PROPUESTAS**

- Desarrollar el plan estratégico del municipio con UEMA.
- Seguiremos financiando los cursos para aprender euskara.
- Crear iniciativas de concienciación y sensibilización hacia el euskara, para mejorar considerablemente el índice de su utilización en el espacio público.
- Euskaraldia-2020: Participar en el grupo de trabajo y apoyarlo.
- Proponemos la creación del Consejo Popular del Euskara formado por personas a título individual.

Klika

EUSKARAK 365 EGUN

EUSKARALDIA

## HEZKUNTZA EDUCACIÓN | 9

Larrabetzu herri hezitzailea izatea nahi dugu, hezkuntza elkarbizitzaren eta herri nortasunaren oinarrizko zutabea delako. Horregatik, gure herrian jendarteak izan behar du heziketaren protagonista; larrabetzuarrok heztea larrabetzuar guztion egitekoa dela sentitu behar dugu eta arduraz bizi behar dugu.

**PROPOSAMENAK**

- Eskolako eta gainontzeko hezkuntzako eragileen artean, etorkizunerako hausnarketa parte-hartzaile bat martxan jartzea.
- Hezkuntza Taldea sortuko dugu eragile direnen arteko sarea sustatzeko.
- Eskolagaz batera, Hezkidetza Plana garatzen segituko dugu.
- Hezkuntza komunitatearekin batera, materiala sortuko dugu gure herriko kulturaren, balioen, jarreren... transmisioa bultzatzeko.
- LUK (Larrabetzuko Umeen Kontseilua) proiektua lantzen jarraituko dugu.





### PROPUESTAS

- Poner en marcha un proceso participativo entre la escuela y demás agentes educativos para reflexionar sobre el futuro educativo en el municipio.
- Crearemos el Consejo de Educación, promoviendo una red entre los grupos implicados.
- Seguiremos profundizando en el plan de coeducación junto con la escuela.
- Junto con la comunidad educativa, crearemos materiales con el fin de impulsar la transmisión de la cultura, valores, actitudes...de nuestro pueblo.
- Seguiremos trabajando el proyecto LUK (Consejo de las niñas y los niños de Larrabetzu).

## KULTURA | 10

Gaur egungo kultur politikaren protagonista jendarte anitza eta askotariko eragilez osaturikoa behar du izan. Euskal Herri osoko kulturgintzaren erronka nagusia kulturzaleak sortzea da eta Larrabetzu ez da salbuespena. Sormena sustatzea, bertoko sortzaileei laguntzea, euskal kultur ekoizpenen berri zabaltzea eta transmisioaren alde egitea dira gure helburuak.









**PROPOSAMENAK**

- Kulturbilgunea indartzen jarraituko dugu. Bertan ari direlako lan etengabean Larrabetzun kulturgintzan dabizen elkarte zein norbanakoak. Udala Kulturbilgunean beste eragile bat denez, EHBildukook honako oinarriak proposatuko ditugu bertan:
  - o Euskal kulturaren ezagutza eta transmisioa lantzea.
  - o Larrabetzuarron sormena bultzatzea. Horretarako euskal kultur sorkuntzak jaso eta herritarrok sortzaile bihurtuko gaituzten ekimenak laguntzea.
- Jai Batzordean zein gainontzeko kultur elkarteetan elkarlana bultzatu, auzokideen parte-hartzea indartu eta kulturgintzan herritarrak protagonista bihurtuko dituzten ekimenak bultzatuko ditugu.

### PROPUESTAS

- Continuaremos reforzando el Consejo de la Cultura, Kulturbilgunea.
- Promoveremos el conocimiento y transmisión de nuestra cultura.
- Fomentaremos la creatividad de los y las vecinas llevando a cabo diferentes iniciativas.
- Impulsaremos y reforzaremos la participación de las vecinas y vecinos en la comisión de fiestas y asociaciones culturales dándoles protagonismo.

## GAZTERIA JUVENTUD | 11

Gazteek burujabe izan behar dute zentzu guztietan. Bizitzan zein herriaren etorkizunaren gainean erabaki behar dute, Euskal Herri askea eraikitze lanetan motor bilakatuz. Bide horretan Udalak lagundu egingo du.

**PROPOSAMENAK**

- Gazteen proiektuak bultzatzeko, ordenantza sortu eta diru laguntzak martxan jarriko ditugu.
- 12-16 urteko gazteekaz batera, urtero ekimenak landu eta garatuko ditugu.
- HORI BAI gazte elkarteagaz harreman iraunkorra izango dugu.
- Anguleri ikasteko espazio legez: aukera berriak aztertuko ditugu, esate baterako, ordutegi zabalagoa eta lokalerako sarrera digitala ahalbidetzeko aukerak.
- Ikastera herritik kanpo doazenentzat, garraio publikoa hobetzeko aukerak landuko ditugu.

PROPUESTAS

- Crearemos una ordenanza y destinaremos una partida económica, para apoyar los proyectos de las y los jóvenes.
- Trabajaremos y desarrollaremos anualmente actividades, junto con las y los jóvenes de 12-16 años.
- Mantendremos una relación estable con la asociación juvenil HORI BAI.
- Analizaremos nuevas posibilidades de la biblioteca en lo que se refiere a espacio para estudio, como, por ejemplo, un horario más amplio y un acceso al local de forma digital.
- Trabajar la posibilidad de mejorar la oferta de transporte público para el colectivo que estudia fuera del municipio.




## OROIMEN HISTORIKOA MEMORIA HISTÓRICA | 12

Euskal Herrian oraindik idatzi gabe dagoen historia idatzi behar dugu. Larrabetzu oso inplikatuta egon da EHko historian. Batetik, Larrabetzuko herritarrak inplikazio zuzena izan dutelako eta bestetik, historia horren aztarna ugari herrian bertan ditugulako.

**PROPOSAMENAK**

- Udalak esku artean duen proiektua garatuko dugu:
  - Testigantzak batu, ordenatu eta ezagutzera eman.
  - Angulerin "Oroimen lekua" eta informazio gunea sortuko dugu.
  - Burdin Hesiaren inguruko ibilbideak erabiltzeko ekimenak abiaraziko ditugu.
- Larrabetzuko historiari buruzko berariazko formakuntza eta trebakuntza prozesu bat martxan jarriko dugu.
- Larrabetzuko historia, II. Errepublika, Gerra Zibila eta Erresistentzia Antifrankistari buruzko fondo bibliografiko bat sortuko dugu.





PROPUESTAS

- Desarrollaremos el proyecto del Ayuntamiento sobre memoria histórica:
  - Recoger, ordenar y dar a conocer los testimonios.
  - Crear en Anguleri "el lugar de la Memoria" y el centro de información.
  - Poner en marcha recorridos alrededor del Cinturón de Hierro.
  - Puesta en marcha de un programa específico de formación y capacitación sobre la historia de Larrabetzu.
  - Creación de un fondo bibliográfico sobre la historia de Larrabetzu, la II República, la Guerra Civil y la Resistencia Antifranquista.



## TEKNOLOGI BARRIAK NUEVAS TECNOLOGÍAS| 13

- Sede elektronikoa bultzatuko dugu, esaterako, etxetik telematikoki Udalagaz harremana izatea posible eginez.
- APP berriak martxan jarriko ditugu.



• Nuevas APPs... para mejorar la relación entre la ciudadania y el Ayuntamiento.
• Potenciar la sede electrónica: mejorar la web municipal para realizar los trámites.

## LARRABETZUTIK EUSKAL HERRIRA DESDE LARRABETZU A EUSKAL HERRIA| 14

- Udalbiltza, UEMA, HOBEKI: instituzioetan eta erakundeetan lanean jarraituko dugu.
- “Euskal errepresaliatu politikoak Euskal Herrira” ekimena bultzatuko dugu.
- “Ongi etorri errefuxiatuak”-ekin bat egiten jarraituko dugu.
- Saharako umeak udan herrian egoteko ekimena mantenduko dugu.
- Nazioarteko garapen proiektuak diruz lagunduko ditugu.








• Udalbiltza, UEMA, HOBEKI: continuaremos construyendo Euskal Herria desde las instituciones.
• Impulsaremos la iniciativa “Euskal errepresialiatu politikoak Euskal Herria”
• Seguiremos siendo solidarios con la iniciativa “Ongi etorri errefuxiatuak”.
• Seguiremos acogiendo a las niñas y niños saharauis durante el verano.
• Continuaremos apoyando la financieramente los proyectos internacionales de desarrollo.





## «Bizkaiak baliabideak ditu. Erabil ditzagun herrialdea hobetzeko»



**Bea Ilardia Olangua**
Bizkaiako foru hauteskundeetako zerrendaburua
Candidata a Diputada General de Bizkaia

### Aprovechemos los recursos para mejorar Bizkaia

Bizkaia es un buen lugar para vivir. A pesar de ello los recursos y el potencial del territorio están siendo desaprovechados por unos mandatarios que apuestan por un solo sector, dejando de lado las posibilidades que ofrece el territorio.

**Si queremos acabar con las carencias existentes, debemos aprovechar todas las posibilidades que ofrece Bizkaia.**

**¿Por qué no vivir en una Bizkaia mejor?**

Bizkaia leku on bat da bizitzeko. Potentziala eta baliabideak dituen herrialdea da. Hala ere, baliabide horiek ez dira behar bezala aprobetxatzen.

Ezin ditugu, orain artean gertatu den bezala, indar guztiak sektore bakarrean jarri.

Bizkaiak dituen gabeziak konpondu nahi baditugu herrialdeak daukan potentzial guztia helburu horren mesedetan jarri behar dugu.

**Bizkaia hobeago bat posible dela argi daukagu**

**Zergatik ez bizi herrialde hobe batean?**

EUROPAKO HAUTESKUNDEAK · ELECCIONES EUROPEAS

Orain ERREPUBLIKAK

## «Europako Parlamentua, lanerako beste gune bat EH Bildurentzat»

Europako Parlamentua lanerako beste gune bat da EH Bildurentzat: Euskal Herriaren aitortza internazionalaren alde lana egiteko; konponbidearen eta preso politikoen eskubideen alde egungo aliantzak sendotzeko eta berriak sortzeko; ezkerreko kideekin batera, EH Bilduren lan, ikuspegi eta borroka feminista indartzeko; eta gure herritarren aldarrikapenak eta beharrak Europara eramateko, zubi lana eginez, betiere, esparru guztietan herritar guztien eguneroko bizitza hobetzeko alternatibak eta eredurik aurrerakoienak defendatuz Europako Parlamentuan.

Orain Errepublikak
Ara Repúbliques
Agora Repúblicas
Ahora Repúblicas

### Europa, otro espacio de trabajo para EH Bildu

El Parlamento Europeo es otro espacio de trabajo para EH Bildu: para trabajar por el reconocimiento internacional de Euskal Herria; para reforzar el trabajo a favor de la resolución del conflicto y los derechos de todas y todos los presos políticos, y crear nuevas alianzas; para avanzar desde una perspectiva feminista a favor de la igualdad entre hombres y mujeres junto con las fuerzas progresistas europeas; para mejorar el día a día de las ciudadanas y los ciudadanos de Euskal Herria.

UDAL HAUTESKUNDEAK
Elecciones municipales

FORU HAUTESKUNDEAK
Elecciones forales

EUROPEAR HAUTESKUNDEAK
Elecciones europeas

ehbildu

@bildularrabetzu EH Bildu Larrabetzu larrabetzu@ehbildu.eus www.larrabetzu.ehbildu.eus